

# AHOTIK AT!

HIRIAK EGIN ETA DESBERDINTASUNAK DESEGIN  
Hirigintza barneratzailea helburu

HACER CIUDADES PARA DESHACER DESIGUALDADES  
Hacia un urbanismo inclusivo

# AHOTIK AT!



**Euskadiko Gazteriaren Kontseilua · Consejo de la Juventud de Euskadi**

**Araba:** Ramiro de Maeztu, 15 behe · 01008 Vitoria-Gasteiz · 945 22 06 01 · [araba@egk.org](mailto:araba@egk.org)

**Bizkaia:** Autonomia, 44 behe · 48010 Bilbo · 944 43 61 43 · [bizkaia@egk.org](mailto:bizkaia@egk.org)

[www.egk.org](http://www.egk.org)

**Gipuzkoa:** Andia, 11 nagusia · 20004 Donostia · 943 42 97 67 · [gipuzkoa@egk.org](mailto:gipuzkoa@egk.org)



# AURKIBIDEA


Editoriala .....	3 or.
Urbanismo para principiantes .....	4-5 or.
Típicos Tópicos .....	6-7 or.
Hiriak egin eta desberdintasunak desegin .....	8-27 or.
Fichadxs .....	28-31or.
Egin Ayllu-ri elkarritzketa .....	32-35 or.
Diseñando el cambio .....	36-37 or.
Etxegorri-ri elkarritzketa .....	38-40 or.
Basura y Género .....	42-45 or.
Recomendaciones .....	46 or.



Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak eta Bizkaiko Foru Aldundiak lankidetza-hitzarmen bat sinatu dute 2012-2015 urteetarako, Kontseiluaren jardunak eta Aldundiak duen GAZTEDI BIZKAIA 2011-2015 proiektuaren ildo estrategikoek bat egin dezaten; izan ere, proiektu horrek Bizkaiko Lurralde Historikoko gazteen emantzipazioa sustatu nahi du eta, horretarako, enplegua, trebakuntza, balioen sustapena eta gazteen parte hartza bultzatuko ditu.

**GazteBizz ataria:**

Elkarritzetarako eremua da, gazteen berri jakiteko, informazio interesgarria jasotzeko, parte hartzeko eta ondo pasatzeko gunea. [www.gaztebizz.com](http://www.gaztebizz.com)



Argitaratzen du - Edita:

Euskadiko  
Gazteriaren  
Kontseilua



Consejo de  
la Juventud  
de Euskadi

[www.egk.org](http://www.egk.org)

Laguntzaileak - Colaboradores:



Erredakzioa - Redacción:


Amaia Elorza eta Itsaso Estarrona (EGK).

Argazkiak - Fotografías:

EGK, Xapaburu, Oihana Estarrona eta beste batzuk.

Diseinua - Diseño:

Estudio Visual 8 · [www.estudiovisual8.com](http://www.estudiovisual8.com)



# EDITORIALA

Gure herriak, gure hiriak. Gero eta zabalagoak, gero eta luzeagoak, gero eta altuagoak, gero eta lurperatuagoak. Gero eta pertsona gehiago hirian, gero eta inpertsonalagoa hiria. Autoentzako diseinatutako kaleak, oinezkoen kalterako. Diseinu artistikoen lumenmendurako egindako plazak, haur jolastien kalterako. Turistentzat eskainitako paisaia urbanoak, bertakoen kalterako. Norbanakoaren neurriera egindako bizilekuak, guztion kalterako. Gustura sentitzen al gara gure herrian, gure hirian? Are gehiago, gure sentitzen al dugu herria, hiria? Azken urteotan hirigintza zeharo baztertzaile baterantz egin da bidea, baina badago gauzak beste era batera egiterik. Badago hirigintza barneratzalea egikaritzerik. Atsegina, guztiona, gurea.

**Ez da iraganmina, lagunok; hauxe da kontua: bazter hauetara zenbat eta gehiagotan itzuli orduan eta ezezagunagoak egiten zaizkigula, gero eta urrinago sentitzen ditugula.**

**Beste barik.** [Paddy Rekalde]

Sentitu ditzagun bazterrak  
gure, ezagun eta gertuko.  
Badugu eta aukera.



**Batiste Ezeiza**  
Euskadiko Gazteriaren  
Kontseiluko presidentea.



# URBANISMO PARA PRINCIPIANTES

Escudándose detrás de siglas indescifrables, el urbanismo esconde muchas decisiones políticas que nos afectan directamente. Aquí presentamos la traducción de algunas de las siglas y conceptos más importantes, para que sepamos de qué nos hablan.

## **DOT\_Directrices de Ordenación del Territorio**

son el instrumento que traduce el modelo socio-económico-ecológico de un ámbito político al territorio en que se asienta. Toma decisiones sobre cómo se va a tratar el territorio en su conjunto y marca directrices para el desarrollo de los municipios.

## **PGOU\_Plan General de Ordenación Urbana**

es la herramienta que se utiliza para ordenar los municipios y ciudades. En él se decide, antes de construirla, cómo va a ser la ciudad, dónde estarán las viviendas, dónde las industrias, dónde los equipamientos... y en la ciudad construida decide en qué zonas se interviene para rehabilitación, en qué zonas no, qué zonas cambian de uso...

## **RE-CLASIFICACIÓN DE SUELO**

existen tres clases de suelo y cada una de ellas define lo que se puede construir y lo que no. Reclasificación se le ha llamado al cambio de clase de suelo, generalmente unido a un cambio económico muy beneficioso para quien tiene su propiedad.

## **SUELO URBANO: consolidado y no consolidado**

esta clase de suelo es el de las zonas donde ya existe ciudad, los cascos antiguos, los barrios que ya están construidos, etc. El suelo consolidado es aquel sobre el que no se prevén cambios. En cambio, el suelo no consolidado, es aquel sobre el que se contemplan modificaciones. Un suelo consolidado puede pasar a ser no consolidado en el siguiente Plan General, si el nuevo plan contempla cambios.

## **SUELO NO URBANIZABLE**

esta clase de suelo está reservado a usos no urbanos y en los que no se puede construir ni urbanizar si no es bajo unas condiciones ligadas al uso agrícola o natural del suelo.



## **SUELO URBANIZABLE: sectorizado y no sectorizado**

esta clase de suelo es aquel que hasta ahora era rural (donde no se podía construir) pero que el PGOU decide que en un futuro se convertirá en suelo urbano y, en consecuencia, incrementa muchísimo su valor. El sectorizado es el que ya está dividido para empezar a repartirse el pastel, a diferencia del no sectorizado, que todavía necesita ser dividido.

**JUNTA DE COMPENSACIÓN\_**

es el foro en el que, por ley, se organizan los propietarios de un suelo que antes era rural y ahora han convertido en urbanizable. En la junta de compensación, se reparten las parcelas para construir y sacar beneficios.

**\_ "PP \_ Plan Parcial"**


es el documento que define más detalladamente una zona determinada por el PGOU para ser urbanizada. Distribuye calles secundarias, plazas, viviendas, usos públicos de menor envergadura... siempre respetando las indicaciones del PGOU. Digamos que decide cómo serán los nuevos barrios.

**PERI\_Plan Especial de Reforma Interior**

es una de las herramientas que se utiliza para intervenir en el suelo urbano consolidado y modificarlo. Define cómo va a ser un barrio que ya lleva tiempo construido pero que se quiere modificar.

**EDIFICABILIDAD\_**

son los metros cuadrados de edificio que se pueden construir por cada metro cuadrado de suelo.



# TÍPICOS TÓPICOS

No hay cultura de alquiler, el suelo es caro porque hay poco, a los nuevos barrios la gente sólo va a dormir... ¿lo has escuchado alguna vez, verdad? Bueno, pues a continuación tratamos de desmontar algunos de estos típicos tópicos.

## 1\_‘aquí la vivienda en propiedad es cultural y no hay cultura del alquiler’.

El sistema imperante de vivienda en propiedad se introdujo en el estado de manera deliberada durante la dictadura [Franco dijo: “un propietario más, un comunista menos”], y ahora es una herencia que no quieren dejar escapar. De hecho, hacia 1950 el 76% de las viviendas era de alquiler, mientras que en 2010 apenas llegaba a un 9%. Si bien entonces el alquiler respondía a una concentración de la propiedad en manos de terratenientes, que hoy la propiedad esté en manos de los bancos hipotecarios

y que el alquiler público apenas sea un 4% no se puede considerar una apuesta por el derecho a la vivienda.

## 2\_‘el urbanismo es cosa de los urbanistas’.

Los urbanistas son las personas facultadas para redactar los diferentes planes, pero aprobarlos o no está en manos de las personas con cargos políticos, que son quienes firman y aprueban. Aun así, en la medida en que el urbanismo afecta a nuestra vida diaria y es el soporte físico de nuestra sociedad, las ciudadanas deberíamos poder decidir y participar en estas decisiones.





### **3\_‘la vivienda es cara porque el suelo es caro y el suelo es caro porque hay poco’.**

En realidad esto es al revés: el suelo es caro porque el sistema para calcular su precio se basa en calcular lo que vale una vivienda (que vale lo que se está dispuesto a pagar por ella) y este precio pagable por metro cuadrado se multiplica por lo que se puede construir según el planeamiento y, al restarle los costos de construcción y promoción, se obtiene el precio del suelo. De hecho, con la Ley del Suelo de 1998 se liberalizó el suelo y se configuró un ‘todo urbanizable’ que contribuyó como ninguna otra medida al alza de los precios del suelo y a la especulación.

### **4\_‘el urbanismo con perspectiva de género es poner cuotas para andar por la acera’**

No, no te preocupes, nadie (desde esta perspectiva) va a controlar el uso libre del espacio público. Pero debemos ser conscientes de que las desigualdades sociales, incluido el patriarcado, tienen un reflejo muy importante en las ciudades. Por ello, debemos analizar la ciudad, su uso y los mecanismos de operación que ahora nos son difíciles de ver porque los tenemos muy asimilados.

### **5\_‘mi sueño es tener una casa con jardín en la ciudad’**

y con transporte público hasta la puerta, y con recogida de basuras todos los días y un colegio al lado y un gran parque para que corra el perro, pero que sea seguro también por la noche y que esté bien iluminado... el modelo residencial del sueño americano tiene graves consecuencias en nuestra forma de vida y en nuestras ciudades, nos hace más dependientes del transporte privado, mina nuestra vida diaria, encarece el gasto en servicios urbanos, consume suelo en cantidades industriales y hace imposibles muchos servicios públicos. Las urbanizaciones de unifamiliares son la anti-ciudad.

### **6\_‘los nuevos barrios son barrios dormitorio’**

... depende para quién. Como diría el psicopedagogo italiano Francesco Tonucci”, son barrios dormitorio sólo para los adultos trabajadores que se van por la mañana y vuelven por la noche. Sus hijos, sus padres incluso a menudo sus mujeres, viven allí; para ellos esos barrios no son dormitorio, sino residencia. Y entonces no tiene sentido caracterizarlos con ese nombre como si justificásemos la ausencia de lugares sociales, de encuentro y de ocio, “porque al fin y al cabo allí sólo se duerme”.

# **HIRIAK EGIN ETA DESBERDINTASUNAK DESEGIN**



## HIRIGINTZA METRO KARRATUAK BANATZEA BAINO ZERBAIT GEHIAGO DA.

Hiritar izatea hirian bizitza baino askoz gehiago dela badakigu, baita herritar izatea herrian bizitza baino askoz gehiago dela ere. Herri-hiritartasun banaketa horrek zenbait eskubide eskaini eta beste zenbait eginbehar ezartzen dizkigu, batean edo bestean bizi garen arabera nolabaiteko izaera bereizgarria garatuz. Hala ere, hiritarron eskubideak eta askotan ere hiritartasun eskubidea bera aldarrakatzen dugula, ezin dugu ahaztu hiria gure egungo gizartearen euskarria dela, eta, zentzu horretan, gizartearekin harreman estua duela. Alegia: **hiria antolatzeko moduak gure gizartearen eragin indartsua du.**



Hiriaren antolamendua hirigintzaren esku dago, baina horrek ez du soilik kale, auzo, enparantza, ikastola edo etxebizitzen kokapena eta haien arteko harremana arautzen. Espazio publiko-pribatuen arteko jolasa ez da soilik eraikin eta errepideen puzzle joko bat. Hirigintzak, berez, gure eguneroko bizitzan, pertsonon arteko harremanetan eta baita gure gizartean aurkezten diren botere desorekak mantendu edo iraunaztean zeresan handia du ere.

Hori horrela, eraikitzen dugun inguru fisikoak gure jokaera eta harremanetan duen eginkizuna ezagutzea berebizikoa da gizarte barneratzaile bat eraiki nahi badugu. Horretarako, beharrezkoa da hirigintza arautzen duten lege eta plangintzen sustraiak nondik norakoak diren jakitea, hiriaren **bazterkeria ez baita metro karratu bat gora edo beherako auzian ematen, hirigintzaren erro eta oinarrietai baizik.**

Edo, beste era batera esanda:

### EL REFLEJO DE LAS DESIGUALDADES SOCIALES

*“La ciudad es el soporte físico de nuestra sociedad. Es formada y transformada en función de los criterios de la organización social de cada momento y una vez construida contribuye a moldear el imaginario colectivo, los comportamientos y las relaciones de quienes en ella habitan.*

*Las desigualdades sociales tienen un reflejo tan directo como invisibilizado en nuestras ciudades y por ello es importante prestarles atención y revertir el desigual ejercicio y control efectivo de sus recursos: el espacio público, la vivienda digna, el transporte público, los espacios de decisión, etc.”*

*(JAWestudio)*

## HIRI BAT, ERREALITATE ANITZ

Gizakiak, pertsonak, hiritarrak... anitzak gara. Anitzak maila pertsonalean eta baita maila kolektiboan ere. Bainaz gure aniztasuna beroren barne hartuko duen hiriaren antolamendua bakarra da, eta gehienoi ahotsa ukatzen digu erabakietan. **Hirigintzak hirugarren pertsonan hitz egiten du aniztasunaz.** Luze izan da horrela eta Bigarren Mundu Gerra osteko oparotasunean Jane Jacobs aktibista kanadiarrak dagoeneko honakoa azpimarratzen zuen: "la mayor parte de los arquitectos urbanistas y diseñadores son hombres (...) cuando urbanizan un área residencial sólo buscan satisfacer las necesidades, o supuestas necesidades de unas imposibles amas de casa aburridas con críos de edad preescolar"[2].

"La mayor parte de los arquitectos urbanistas y diseñadores son hombres (...) cuando urbanizan un área residencial sólo buscan satisfacer las necesidades, o supuestas necesidades de unas imposibles amas de casa aburridas con críos de edad preescolar". Jane Jacobs

Gure gizartean oraindik indartsu darrauten etnozentrismo, androzentrismo eta adultozentrismoa bazterketaren erdigunean daude, baita hirigintza eta hiriei lotutako bazterketaren bihotzean ere. Hiria pertsona eredu zehatz batentzat diseinatzen bada, eta berau diseinatu eta beroren gain erabakiak hartzeko eskumena duten gehienak eredu horren barruan badaude, non gaude emakume, gazte, atzerritar eta 'tokian-tokiko, gizon, langile eta nagusi' ez garen gainerako guztiak? **Non daude gure ikuspuntu, behar eta interesak, hiria planifikatzen dutenen ikuspuntu, behar eta interesekin bat ez badatoz?**

Legeak dioenez, "udalak jendaurrean jarriko du bi hilabetez gutxienez (Hiri Antolamendu Plan Orokorra) epe horretan iradokizunak eta alternatibak aurkeztu ahal izateko". Horrez gain, ez dago bestelako parte hartze mekanismorik, are gutxiago lutesleak direnik. Beraz, hiri antolamenduaren lerro nagusiak politikarien bulegoetan sinatzen dira eta plano, memoria eta aurrekontuak teknikarien bulegoetan zehaztu. Bainaz hirigintza, benetan barneratzaile izateko, kolektiboa izan behar da. Denon nahi eta beharren arteko elkarritzeta ezinbestekoa da, baita erabakiak bulegoetatik ateratzea ere.



## TEKNIKA NEUTROA ALA ERABAKI POLITIKOA?

Ez genuke inoiz onartuko eskubide zibilak arautzen dituzten legeak neutroak direnik. Beraz, zergatik onartzen dugu gure gizartearen euskarri fisikoa arautzen duten legeak neutroak direla? Bizi garen gizartearen jantzi eta arropak bezalakoak dira gure Iurrealde eta hiriak: takoiak janzen badizkiogu ezin izango dugu korrika egin dezan espero.

Hirigintza ez da teknika neutro bat, gizarte eredu batean oinarritutako erabaki politiko bat baizik.

HAPO (PGOU gaztelaniaz), Plan Partzial, Ituntze batzar (Junta de Compensación gaztelaniaz) edo IIBE (ECIA gaztelaniaz) izen korapilatsuen atzean ezkutatzen bada ere, **hirigintza ez da teknika neutro bat, gizarte eredu batean oinarritutako erabaki politiko bat baizik.** Gaur egun hartzen diren erabakiak geroan izango dute eragina, iraganeko erabakiek guregan eragina duten modu berean. Alegia, gure hirietan alde zaharra, zabalgune burgesak, langileen auzoak, hedapen garaikideak... eta beste hainbat hiri-ehun ezberdintzen ditugu. Hirigintza benetan teknika neutro bat balitz, ez liratuke ba auzo denak berdintsuak izango? Garai bakotzak bere gizarte antolamenduaren ereduaren arabera eraiki du hiria, aurreko garaietan eraikitakoaren gainean edo berarekin artikulatua eta, betiere, momentu bakoitzeko gizarte eredura moldatuz.





## ¿QUÉ ES LA GENTRIFICACIÓN?

Es el proceso de transformación de barrios y centros históricos por el que mediante planes urbanísticos e inmobiliarios las clases populares de la población original son expulsadas progresivamente para dar entrada a otras de mayor poder adquisitivo. La herramienta utilizada es la rehabilitación del barrio centrada en su musealización como reclamo turístico.

Esandakoaren adibide dira Erdi Aroko hiriak: haien kale estu eta txikiiek, egunero bizi gertutasunean bizitzeko pentsatuak zeuden, beti jendez gainezka. Hala ere, XIX.mendean indarrez sartu ziren kotxeak kale estuetan zehar, askotan eraikinak eraitsiz, kaleak zabaltzen behartuz, eta erabilpen ezberdinaren zonifikazioaren esku baztertuta geratu ziren "alde zaharrak", jada ez ziren garaikideak. Azkenik, merkatuaren gizarte murgilduta, zonalde horiek negozio egiteko abagune bihurtzen ari direla ikusi dezakegu: bertoko jendea kanporatzen da dirua dutenen onuran.

Gizarte ereduek bakoitzarengan eragin ezberdina duten era berean, **eredu horietatik eratorritako hiri eta lurralte kudeaketak batzuoi eta besteoi modu ezberdinean eragingo digu**. Alabaina, bazterkeriaren erro eta tresnak berdintsuak izaten dira gehienetan: ezkutatu, kanpoan utzi, menpeko-tasunean mantendu eta balio gabetu, besteak beste.

Historian zehar hirigintza eredu ezberdinak garatu izan dira, asko eta asko soilik teorikoak, beste hainbat aurrera eraman direnak. Antzinean garatutako eredu kolektibo eta kudeaketa parte-hartzailletik oso urrun, arkitekto, ingeniarri eta teknikariekin errezeta bakar bateko konponbideekin ebatzi nahi izan dituzte maiz arazo guztiak. Ildo horretan, lorategi-hiria, hiri lineala, hiri zentrokidea edo lauki-sarea planteatu ziren aro ezberdinetan, planoetan marrazten diren panpinek jendearen jarrera eta zereginak

gidatuko balitzte bezala, jendearen eguneroko bizi kontutan hartu gabe. **Haatik, hiriak organismo biziak dira, eta ez dituzte beti betetzen marrazki eta planoek aurrikusten dizkieten jarduer eta bizimoduak.**



Gure ingurura moldatu beharrean, gizakok gure ingurua gure beharretara moldatzen dugun animalia bakarra garela esan ohi da. Aitzitik, agian beste zer-bait gaineratu beharko genuke: gure ingurunera moldatu baino, gizaki bakar batzuk gure aurretik moldatutako ingurunera birmoldatu behar garela.

Guztioitzat diren hiriak eraikitzeko eta bizitzeko, hirigintzan ere gizarte eredu parekide bat eraikitze-ko, berebizikoa da gizartea, guk geuk, zeresana, jakinmina, formakuntza, hitza... izatea eta erabiltzea.

“Ingurunera moldatu baino, gizaki bakar batzuk gure aurretik moldatutako ingurunera birmoldatu behar gara gizakiok”.



## GIZARTEA ERALDATZEKO TRESNA



Ez dira gutxi gaur egungo hirigintzaren irakurketa kritikoak. Badira lan ugari eta ekimen anitz gure hiri eta herrien egitura ikuspuntu 'tekniko' eta 'profesionalizatu' horretatik harago abiapuntu parte-hartziale eta barneratzaille batetik jorratu izan dutenak. Gehienak, administraziotik kanpo, jendarte eta auzokideen ahaleginarekin garatu izan dira, askotan administrazioak berak jarritako trabak gailendu beharrez.

Izan ere, 'gauzak beste modu batean egiteko' abagune gutxi dago. Arauak derrigorrez bete behar dira. Eta bakoitzak bere beharrak eta nahiak asetzeko ahal duen moduan arauen arteko zokoa bilatu behar du; auzoko parkearen defentsa, kiroldegiaren aldarri-kapena, gaztetxea martxan jartzea, plazaren berantilamendu parte-hartzialea... Alabaina, ekimen zehatz guzti hauiek horiek, orokortasun batean ulertuta, hiri eredua eraldatzeko bidea marrazten hasi dira.

Bidean aurrera goazela, berebizikoa da aurretik egindakoa eta egiteke daukagunari buruz hausnartzea, 'behar praktiko', 'eraldatze potenziala' eta 'interes estrategiko' arteko ezberdintasuna argitu eta azken hauek bultzatzen dituzten ekintzak bermatzen hasteko.

Ulergarri gerta dadin, '**behar praktikoak**' gure berehalako beharrak asetzean oinarritzen dira, eguneroko bizitzan topatzen ditugun trabak ebaztean, baina behar horien jatorria eraldatzeko indarrik egin gabe. '**Interes estrategikoak**', berriz, epe ertain eta luzeko perspektiba ikuspegia daukate eta egungo egoera ezberdin eta baztertzaileen arrazoiei buruz hausnartzen du, arrazoi horiek eraldatzeko helburuarekin. Interes estrategikoek ez dute zertan behar praktikoak asetzzen lagundu behar. Era berean, behar praktikoek ez dute zertan interes estrategikoak lortzen lagundu. Gertatzen bada (hau da, behar

praktikoak interes estrategikoen mesedetan jartzen badira) **'eraldatzeko potentziala'** daukatela esango da, behar praktiko horiek asetzea jabetza eta eraldaketarako bidea leuntzen duelako.

Horrela, gure **hirigintzaren genero hausnarketa bi eredu**en arabera egin genezake. Batetik, sistema patriarkalak emakumeoi esleitzen digun papera ikusita, zaintza lanetan kokatuta, gure lan orduak bikoitztuta, gaitasun ekonomikoa murritzuta, boterea desorekatuta... egungo hiriak eguneroko bizitza erraztu baino, zailtzen digula ikusi dezakegu: erabilera ezberdinak bata bestearengandik urrunegi kokatzen ditu eta leku batetik bestera mugitzeko ordu gehiegi erabiltzera behartzen gaitu; kotxearen menpekotasuna sustatzen du eta garraio publikoa zailtzen du; bizitzarik gabeko hirietan beldurragatik etxean utzi nahi gaitu... eta abar. Ikuspegi horren arabera, gertutasuneko bizitza bultzatzea, garraio publikoa hobetzea edo puntu beltzak argitzea behar praktikoak asetzea izango litzateke, gizarteak emakumeoi esleitzen digun paperaren eginkizunaren zenbait arazo ebatziz, baina gizon eta emakumeon arteko botere eta zereginak orekatu gabe.

Aitzitik, aldaketa guzti horiek gure gizartearen eraldaketan eduki dezaketen indarra aztertz gero, hainbat ondorio atera ditzakegu: batetik, gure beharrak asetzen ditugunean, gure burua ahaldundu dezakegu; eta horrez gain, etekin ekonomikotik aldendu eta bizitzaren zaintza gure sistema (eta hirien) jo-puntuaren ipintzeak duen 'eraldaketa potenziala' berebizikoa dela ondorioztatu dezakegu.

#### **Eguneroko bizitzarako hiriak eraikitzea, berez, gizarte eredu eraldatzeko** indar bat izan daiteke.

Behar praktikoen azterketa egiteaz gain, badago hirigintzan genero ikuspegia interes estrategikoen ildotik hausnartzea ere. Izan ere, badira hirigintzaz aparte hiriaren antolakuntzan islada duten beste praktika eta ohitura batzuk. Horiek ere emakume

eta gizonengan eragin ezberdinak dituzte gizarteak berak batzuoi eta besteoi esleitzen digun tokiaren arabera. **Gizarteak daukaten boterearekin paregarria da kirolak, erlijioak edo ekonomiak hiriaren antolamenduan duten indarra.** Hain barneratuak ditugu espazio-boterearen banaketaren desorekak, ezen gehienetan ez baititugu ikusten.

Horrela izanik ere, lurzoru eta hiri banaketa eredu horiek eraldatzea gure gizartearen eraldaketan zuzeneko eragina eduki dezake berdintasun eta praktika barneratzaileen norabidean, batik bat, behi sakratuek haien lekua galtzen dutenean.



## Leku propioen bila

Era berean, ezberdinketa bera egin dezakegu gazte perspektibatik begiratuta. Alde batetik, pertsona helduak ardatz dituen gizartea gizarte adultozentriko honek gazteoi esleitu digun papera betetzeko ditugun behar praktikoak identifikatu ditzakegu. Alegia, eskubideak gureganatzeko orduan, ikasle edo langile prekario gaztearen papera daukagularik, egungo hiri-ereduan gure behar praktikoak anitzak dira: ikaskuntza saretik hasita, aisiaaldi eskaintza alternatibo batera eta, nola ez, kirola praktikatzeko tokiak barne. Bainan gazte askok, gizartean zein hirian, gure tokia izan eta eraiki nahi dugu, haurtzarotik heldutasunerako trantsizio momentu bat baino askoz gehiago garelako.

Gazte askok, gizartean zein hirian, gure tokia izan eta eraiki nahi dugu, haurtzarotik heldutasunerako trantsizio momentu bat baino askoz gehiago garelako.

Horrela ba, gure **eredu alternatiboak deskriminalizatzea eta gure autonomia eta parte-hartzea** sustatuko duen eredu bat eraikitzea izan daitezke gure interes estrategikoetako batzuk. Izan ere, gaur egungo gizartea gazteoi hitz eta botererik gabeko paper bat esleitu digu, hirietan guretzako tokirik ez dugu topatzen eta topatzerakoan besteen arau eta ideien menpe daudela ikusten dugu gehienetan. Horrek sortzen dizkigun gabezia eta deserosotasunak gainditzeko gure leku propioak bilatzen ditugu. **Gehienetan hiriak uzten dituen bazterretan, beste askotan eredu berriak eraiki nahian, hiri-sistemaren zirrikuitatik sartzen gara.**

Baina ‘spazio proprio’ horiek eraikitzea ez dago gizartea guri esleitu digun eginkizunean aurreikusita, gure-gureak izanik, ez baitaude besteen menpe, gure-gureak izanik, hitza eta boterea ematen digutelako. Orduan gizarte-hiri eredu honek gizalegetik ateratzen gaitu eta gazteon jokabideen estereotipoak hiri-indarkeriarekin lotzen ditu.





Gazteok hiri-ereduaren eraikuntzan hitzik ez dugunez hirian gure tokia guk geuk definitu ez dugunez eta bere bila edo eraikuntzan gabiltzanez, eredutik kanpo sortzen dugun gehiena susmagarri bihurtzen da, sortzen dugun momentu beretik. Ez omen da guri esleitu zaigun paperak agintzen duena. Gaztea futbol talde batean edo tabernetan parrandaz egongo dela suposatzen da. Aldiz, kolektibo bat eratzeko bileretan, kartelak jartzen edo ekintza eta ideia propioak garatzen badabil, eredutik irten da.

Horrela ba, zein da guk nahi dugun hiria, zein da denon artean eraikitzeo bidea? **Zein hiri eta hiri-gintza eredu erabiliko dugu gure gizartea barneratzailea izan dadin?**

### **GAZTETXES: PROPUESTAS FUERA DEL MODELO OFICIAL**

\* Texto aprobado en la 31<sup>a</sup> Asamblea de EGK, marzo de 2012.

Los espacios y servicios públicos no siempre responden a las necesidades, aspiraciones, inquietudes y realidades de las personas jóvenes. Frente a los horarios, las condiciones de uso y los contenidos de las actividades y servicios propuestos por las diferentes administraciones, miles de personas jóvenes de Euskal Herria llevan más de veinte años organizándose en torno a los gaztetxes y fomentando alternativas al ocio consumista. Toman las riendas de su tiempo libre en lugar de ser destinatarias pasivas de ofertas externas.

Organizan sus propias jornadas, charlas, video-forums, conciertos, debates, cursos, grupos de música, compañías de teatro, movilizaciones y fiestas, entre otros. Y, todo, llevado a cabo desde fórmulas no jerárquicas de organización.

## Hirigintza eta hiriaren dinamikak HIRIAREN KURRIKULUM EZKUTUA


Normaltasunez bizi duguna, normaltasunez barneratzen dugu eta normaltasun osoz errepikatu eta kaleratzen dugu ere. Betidanik ‘horrela’ izan denari aurpegi ezkutua ikusi eta berori aurre egitea ez da batere erraza. Formalki irakasten ez diguten arren, **gure inguruak barnerarazten digun hori da ‘kurrikulum ezkutua’**. Hezkuntza arloan landu izan denean, kurrikulum ezkutuak ikasleen jarrera, erabaki, portaera, nahiak, aukerak... erraztasunez moldatu eta mugatzen dituela ikusi da, gure gizartearen sinesmen sistemak belaunaldiz belaunaldi mantenduz.

Kurrikulum ezkutuak ezberdintasun eta bazterketa tratuak mantentzean izan duen papera oso kritikatua izan da. Era berean, behin eta berriro aldarrikatu da kurrikulum hori aldatzeko beharra, bestek bestetik, ikasgelen egituraketa, irakaslegoaren portaera, edo hezkuntza sistemaren antolamenduak gizarteari eta bereziki gazte eta umeen izaerari forma ematen diela ikusita. Baino hezkuntza eta heziketa egunero-kotasunean topatzen dugu. Ez da soilik eskolako arazo bat eta, berez, gure gizartearen euskarri eta oinarri diren herri eta hirietan indar handiz aurki dezakegu kurrikulum ezkutu indartsu bat. Nola irakasten digu hiriak?

“Guk ematen diegu forma gure eraikinei eta gero haiak ematen digute forma guri”, esan zuen Erresuma Batuko Winston Churchill lehen ministroak. Joan-etorriko bidea den eragin hori ulertzea beharrezkoa da, normaltasunez ikasten dugun eta ikusezin gertatzen zaigun hiri baztertzaile hori des-ikasi eta aldatu ahal izateko.

*“Guk ematen diegu forma gure eraikinei eta gero haiak ematen digute forma guri”.*

Winston Churchill



## KONTSUMOAN OINARRITUTAKO ESPAZIO PUBLIKOA ETA MERKATUAK ANTOLATUTAKO HIRIA

Espazio publikoaren aldarrikapena ez zaigu batere ezezaguna egiten. Oso entzuna izan da azken hamarkadetan. Hiri Antolamendurako Plan Orokor (HAPO) guztietan aurreikusten dira peatonalizazioak, espazio berdeak eta zuzkidura partzelak (suelo dotacional, gazteleraz). Teorian primerako albistea da hau.

Alabaina, espazio publikoa antolatzeko moduak badakar ere kurrikulum ezkutu bat. Nahi eta nahi ez, gure espazio publikoa luze bihurtu zen merkatuaren morroi. Alde batetik, mugikortasunaren izenean; bestetik, ostalaritzarenean; eta azkenik, eraginkortasunarenean.

**Dagoeneko normaltasun osoz onartzen dugu gure kaleen bi heren kotxeentzat izatea,** espazioaren banaketa horrek kotxea erabiltzen ez dugunoi kalearen zati handi bat debekatzen digun arren. Oinezkoi geratzen zaigun kale zatiaren erdia baino

gehiago tabernen kaleko mahai, aulki eta terrazekin betetzea ere normala iruditzen zaigu, berton kontsumitzen ez dugunoi kalea erabilgaitz geratzen bazaigu ere. Azkenik, sobran den espazio urria azkar batean pasatzeko besterik ezin dezakegu baliatu. Horrela, lasaitasunez eta kontsumitu gabe kaleaz gozatu nahi dugunoi espazio publikoa mugatua geratzen zaigu.

Ez da, beraz, harrigarria baliabide ekonomiko propio urriak dauzkagunok, lan-merkaturatu gabekoak, prekarizaturiko gazteak eta zaintza lanetan aritzen diren emakumeak bereziki, espazio publikoan guretzako tokirik ez topatzea, eta askotan ere, ez bilatzea. Zer egingo dugu ba, ez badugu leku batetik bestera zertan joan behar edo ezin badugu taberna batean poteak hartzen egon, eta gainera banku batean eserita egotea alferkeriaren sinonimo bihurtu badugu?



## Oinezkoak, zokoratuak

Peatonalizazioak ugariak izan dira azken hamarkadan, gero eta muga gehiago jartzen dizkiegu kotxeei gure alde zahar eta erdiguneetan, gizarte aldarrikapenak edo beste arrazoi batzuk direla medio. Ordea, horren barneratuta dugu hiriak irakatsitakoa, ezen dendaz denda joateko edo tabernetako erretzailetxokoetan esertzeko kale bihurtu baitira horiek ere. Erdialdeak ez bezala, auzo berriak kotxeentzako etorbide eta aparkalekuz josten ditugu, gure portaletitik hiriko beste edozein puntura kotxez joan ahal izatea eskubide bat izango balitz bezala, auzo berriak oinezkoontzako antolatzerik ez balego bezala.

Kalez, parkez, enparantzaz... eta espazio publiko bezala izendatu ditugun beste espazio ezberdin askoz josi ditugu gure hiriak, gehien bat Erdi Aroko eta garai industrialeko hiriekin konparatuta, baina benetan publiko deitu diezaiekegu kontsumitu gabe erabili ezin diren espazioei?

Benetan publiko deitu diezaiekegu kontsumitu gabe erabili ezin diren espazioei?

**Hiriaren antolaketa bera merkatuaren eta arrazoi ekonomikoen morroi bihurtu da.** Eraginkortasunaren izenean erabilpen ezberdinak elkartu eta bata bestearengandik aldendu dira, gauza baterako edo beste baterako hiri zatiak sortuz: lo egiteko auzoak, erosteko eremuak, lan egiteko poligonoak, ikasteko campusak, kirola egiteko guneak... bizitza ekintza anitzen nahasketa eta artikulazioa dela ahaztu izan bagenu bezala.

Horrek eragin larriak ditu hiri-bazterketan. Izan ere, etxetik lanera, lanetik erosketetara, ikasketetatik aisialdira... eta beste mugimendu guztiak larriki zailtzen baititu. Gehien bat, **derrigorrezko mugikorta-**

**suna** eta bazterketaren arteko loturan berebizikoak diren bi puntu daudela kontutan hartzen badugu: gaitasun ekonomikoa eta denboraren beharra.

Horrela, kolektibo ezberdinak eremu bakarrean isolatuta geratzera zigortzen ditu zonifikazioak, berauen bizi-aukerak murriztuz eta hiriak daukan aberastasuna urratuz. Auzo berri askori lo egiteko auzoak besterik ez direla atxikitzen zaie, etxeak besterik ez dauzkate-lako, baina, egiatan, etxetik kanko lan egiten dute-nentzat eta eguneroko bizitza auzo horietatik kanko egiteko arazo sozioekonomikorik ez daukatenentzat dira lo egiteko auzoak soilik. Izan ere, baldintza hauek betetzen ez dituztenentzat **lo egiteko auzoak baino, kaiola bihurtzen baitira.** Nola bete ditzakete euren eginbeharrok zaintza eta etxeko lanetan diharduten pertsonak (batez ere, emakumeak), beharrezko dituzten leku gehienetatik urrun dauden eremuetan bizi baldin badira?



Nola egin erosketak, nola eraman umeak eskolara, nola lagundu nagusiak medikuarenera, nola gauzatu bere nahi eta interesak, leku horiek eskura ez badaude? Lan-merkaturatu gabeko gazte, ikasle eta langabetuekin gauza bera gertatzen da: nola mugitu lan bila edo unibertsitatera? Nola aukeratuko gaituzte lan baterako bertara heltzeko kotxerik ez badaukagu? Nola handitu ditzakegu gure abaguneak, aukera horiek dauden lekura iristea egun osoa eramatzen badigu? Nola gauzatu gure nahi eta interesak eskura ez badaude? **Gure beharrak, nahiak eta ardurak asetzetan ez dituen auzo bati lotuta, hiriak eskaintzen duen aberastasuna galtzen dugu**, ghettoak sortzen dira, ezezagunarekiko beldurra sustatzen da, eta abar.

Merkatu eta jabetza pribatuaren logika horrek badauka beste ondorio larri bat: leku propiorik gabe uzten gaitu leku propioa ordaindu ezin dugunoi. Beti besteen begiradapean, beti besteen erabakien menpe, beti baimen eske ibili behar bagara, askatasun eta hiritartasun eskubiderik gabeko hiritar bihurtzen gaituzte. Bigarren mailako hiritarrak.

Hiriko espazioaren banaketak, merkatuaren logikan murgildurik, gizartearren gehiengoa kanpoan uzten gaitu. Hiria erabiltzeko eta beroren gain erabakitzeko eskubideak diruz ere lortu beharra dago. Izan ere, **jabetza pribatuaren aitzakiaz hiriaren funtsa ukatu**

**egiten da, eta, egoera horri buelta emateko aukera aztertu beharko dugu**, jabetzaren funtzi soziala egikaritu dadin behintzat.

### **Udal finantziazioa eta hiria**

Aurreko hamarkadetako onura ekonomikoa adreiluan oinarritu izanak eragin handia du gure hiriengana, egunero ikusten ditugun ondorio larriez harago. Izan ere, etxebizitzen boom-ean murgilduta, udalek haien diru-sarreren kopuru handi bat lurzoru salmentaren esku utzi baitzuten. Gero eta hiri-garapen gehiago, gero eta orube gehiago saldu, gero eta finantzazio handiagoa.

Egoera horrek ez zuela betirako iraungo kontutan izan gabe, ez zuten aintzat hartu behin orubeak saldua eta eraikita, kaleak eta haitatik eratorritako gastuak udalera itzuliko zirela, besteak beste, garraio publikoa edo zaborren bilketa jaso beharko zutelako. Horrela ba, **dentsitate urriko garapenak sustatuta, orain udalen gastu estrukturalak areagotu dira**, eta horiek ordaintzeko diru ezak gogor kolpatuko ditu hiri eremu ezberdinak: kohesio gabeko aldiriak, auto pribatuaren mugitzeko pentsatutako auzoak, lo egiteko baino azpiegitura gehiagorik gabekoak, eta abar.

Lurra, diru sarrerak jasotzeko zorua bezala ikusten jarraituz gero, ez da izango modurik hirigintza barneratziale bat egikaritzeko. Beraz, lurruk, etxebizitza eskubidea bezalaxe, merkatuaren logikatik irten beharra dauka.



## NOLA BANATZEN DA GIZARTE BOTEREA HIRIAN?



Gizartearen modu desorekatuan banaturik dagoela ez zaigu ezezagun egiten. Etnozentrismoa, patriarkatua eta adultokraziak zerikusia handia dute desoreka honetan eta erabiltzen dituzten mekanismoak anitzak eta askotan ikusteko zailak dira.

Ezagutza boterea da, baita hirigintzan ere. Zentzu horretan, erabaki 'tekniko' bezala mozorrotzen dira hirigintzarekin lotutako erabaki politiko asko, araudi zorrotz eta ulertezinen hizkuntza baliatuz. Gehiendetan, gizartearren parte hartze eta erabakietatik urruntzen dutelarik hirigintza, espazioaren izaera publikoa zapalduz.

**Erabaki 'tekniko'** bezala mozorrotzen dira hirigintzarekin lotutako erabaki politiko asko, araudi zorrotz eta ulertezinen hizkuntza baliatuz.

Aurretik kaleen antolamendua aztertu dugu, eta mugikortasun eta kontsumoaren izenean antolatzen ditugula ondorioztatu dugu. Oraingoan, zuzkidura-sarea delakoaren inguruan arituko gara [erdaraz red de servicios dotacionales]. Berez, erabilera berezi eta publikoetarako zuzendua beharko litzake, baina egia esan behar bada, gizartean topatzen dugun botere banaketa desorekatua indartu eta erreproduzitzeko erabiltzen da nahi genukeena baino gehiagotan.

Hezkuntza eta Osasun Zerbitzuetako eraikin-sareak alde batera utziz (ez, baina, interesa ez dutelako) aho betez defendatzen ditugun beste zuzkidura-lurzoru batzuk topa ditzakegu: kirola eta erabilera komunitariora zuzendutako lurzoruak, besteak beste. Alabaina, lurzoru horietaz egiten den erabilera ez da haien izena bezain ederra, eta gizartearren desorekak isolatzan dituzte askotan ere. **Gizarte Botereek leku bereizgarriak gordetzen dituzte eurentzako hirietan.** Hori bai, onura eta edertasunez margotuta.

## Kirola eta hiria

Hirigintza plan batek Iurzoru bat kirol-erabilerarako gordetzen badu... futbol zelai bat egiteko gordetzen duela esan nahi du, gehienetan. Futbola eta saskibaloia kirolaren sinonimo bihurtu dira gure hirietan, besterik ez balego bezala, eta ongizatearen izenean gero eta leku gehiago bereganatu dituzte. Baino egungo testuinguruari erreparatzen badiogu eta gure arautegi eta ohituretan arreta jartzen badugu, erabilera horiek hiri-bazterketa ere eragiten dutela ondorioztatuko dezakegu.

Kirolak? Hiri bazterketa? Nola izan daiteke hori? Lehenik eta behin, esan beharra dago kirolak, eta bereziki futbolak, botere handia duela gaur egun gure gizartearen. Futbolaren buruan egotea Gizarte Botere handia izatea suposatzen du. Horrez gain, modu hierarkikoan antolatua dagoen kirola da. Baino azpimarragarriena, dena den, honako hau da: 2005ean onarturiko Ema-kume eta Gizonen arteko Berdintasun Legearekin kontraesanak dituela.

Berdintasun legeek honakoa ezartzen dute: "debeku da pertsonen sexuan oinarritzen den bereizkeria oro, zuzenekoa zein zeharkakoa, edozein delarik ere hartarako erabilitako era". Haatik, kirolaren munduak emakume eta mutilen kirolaren bereizketa ezartzen du berez. Eta ez bakarrik kirol profesionalean: gazte-gaztetatik ezartzen digu derrigorrezko bazterketa hori. Batzuoi eta besteoi kirolean aritzeko jartzen zaizkigun zaitasun eta erraztasunen ezberdintasunak kontutan hartuta, zenbakiak ikusita eta gehien bat zelai hauen erabilera esklusiboa ikusita, esan dezakengu hirian ematen zaien tokia gehiegizkoa dela. Horrez gain, **pertsona eredu berezi batentzat zuzendutako espazioak** dira, gizarte boterea isolatuz eta berori indar gehiago emanet.

Noski, kasurik nabarmenena den arren, bazterketa mota hau ez da soilik futbol zelaietan ematen. Saskibaloiekin zelaietan, zezen plazek eta beste kirol batzuetarako eraikinek, neurri ezberdinatan, badaukate zerikusia dinamika horietan.



## Eliza eta hiria

Erlziejoz hitz egiten dugunean, inori ez zaigu ezezagun egiten nondik gatozen. Nora goazen zehaztea, baina, gatazkatsuago egiten zaigu. Dena den, eta hitz ofizialek diotena diotela ere, badakigu oraindik ere eliza bera Gizarte Botere indartsu bat dela eta diru publikoz hornitzen dugula. Aldiz... ba al dakigu elizak zein paper duen gure hirietan?

Hirigintza arautu aurretik Elizak lurrik bereganatzeko zuen modua alde batera utzita, gaur egun ikusi dezakeguna honakoa da: Hiriaren Antolamendurako Plan Orokorreko (HAPO) erlziejorako lurrik aurrikusten ez badituzte ere (salbuespenak salbuespen), tenpluak zuzkidura lurzoruetan eraikitzea baimentzen dute. Horrela, haur-eskola, elkarte-etxe edo **beste zerbitzu publikoak egon zitezkeen orubeetan elizak**

**eraikitzen direla ikus dezakegu, ez baina kristau ez diren beste erlziejotakoak.** Horrek erakusten duen etnozentrismotik harago, lurzoru hauei erabilpen bat edo bestea emateko erabiltzen den esleipen prozesua begiratzen badugu “heltzen den lehenaren legea” jarraitzen dela topatzen dugu. Nor ote den lehena? Ba gaitasun ekonomiko handiena duena. Horrela, zenbait erabilpen hobesten dira zeharka (elkartea-eta edo beste erabilpen batzuen gainetik), haien Gizarte Boterea hobetsiz.

Kontutan izanda apaizarena emakumeok debekatuta daukagun ofizio bat dela, Elizaren hierarkiak duen Gizarte Botereari lotutako espazio publikoa debektzen zaigula esan dezakegu ere.



## Etxebizitzak eta hiria

Horrez gain, etxebizitza politika publikoek ere badute zer esan gure hirien antolamenduan. Ez al da ba hirien adierazleetako bat bertan jendea bizitzea? Jabetzan oinarritutako etxebizitza politikek ghetto eta bazterketa eremuak bultzatu dituzte gure hirieitan, berez, hiri eremu batzuei Gizarte Botere maila emanez, diruan oinarritutakoa berriro ere.

Horrez gain, inor bizi ez den hiri eremuak sortu dira, politika publikoek hutsik dauden etxebizitzak onartu dituztelako eta bigarren etxe bat erostea sustatu egin dutelako. Berez, bizitoki izatea da hirien helburua. Helburu horren kontra, aldiz, adreiluzko basamortu bihurtu dituzte zenbait auzo eta herri, zonifikazioaren ondorioz ekonomia zentro, erosketa eremu edo bestelako hiri-ehun batzuekin elkarbizioz.

Inor bizi ez den hiri eremuak sortu dira, politika publikoek hutsik dauden etxebizitzak onartu dituztelako eta bigarren etxe bat erostea sustatu dutelako

Kolektibo ezberdinek etxebizitza politikak berbide-ratzeko proposamen ugari egin dituzte. Administrazioaren erantzuna urria izan da oro har. Bainazken bolada honetan, gure hirientzat bereziki mingarria izan daitekeen gai bat dago mahaigainean: zuzkidura-bizitokien sustapena. Bizitoki mota hori 2006ko Iurzoruan legean sortu zen, baina gutxi izan dira aurrera eramandako promozioak. Orain, Etxebizitza Lege Proiektu berriak etxebizitza egonkor ez diren bizitoki hauek bultzatu nahi ditu.

Zuzkidura-bizitokiak proposatu ditu administrazioak, zorua bukatu den auzoetan eraikin berriak bultatzeko; horrek hainbat ondorio kaltegarri ekarri dezake

Etxebizitza eskubidea gauzatzerako orduan figura honek izan ditzakeen ondorioak ugariak dira. Bainaz, hori gutxi balitz, hirien antolamenduan izan ditzakeenak larriak dira ere. Izan ere, lege proiektuak dioenez, zuzkidura bizitoki hauek etxebizitzak eraikitzeko EZ diren zoruetan eraikiko dira. Non eraikitzen dira orduan? Haur-eskola, gizarte zerbitzu edo elkarte-etxeak altxatzeko prest zeuden zoruetan. Horrez gain, ez dute zertan hirigintza arautegia bete behar izango eraikigarritasun gaietan. Hau da, nahi beste etxe eraiki ahal izango dira lehen eraiki ezin ziren tokietan.

Argi dago ez direla pentsatu dentsitate gutxi dagoen tokietan kokatzeko. Aitzitik, etxeak eraikitzeko zorua bukatu den auzoetan etxe promozio berriak bultzatu ahal izateko daude pentsatuak, berez, prezioak altuagoak diren inguruak. Gure hirian izango dituzten ondorioak ikusteko garaia helduko da.



## IDENTITATEA ETA IKUSTARAZPENA

[agerian ez dagoena ez da existitzen]

Testu liburuek, albiste edo prentsak egiten duten moduan, gure hiriek ere eredutik kanpo kokatzen diren izaera asko eta asko ezkutatzen dituzte isiltasunaren bitartez, baita beste gai askori gehiegizko zara-ta ateraz ere. Horrela, gizartearen irudikari kolektiboa moldatzeko bidea egiten dute. Ikusten ez dena ez da existitzen, erakusten ez dena ez da ikusten eta bote-re-a daukanak erabakitzentz du zer erakutsi eta zer ez.

Ikusten ez dena ez da existitzen,  
erakusten ez dena ez da ikusten  
eta boterea daukanak erabaki-tzen  
du zer erakutsi

### Kaleak, gizonezko... edo amabirjinak

Behin baino gehiagotan landu izan da kale eta enparantzen izenen nondik norakoa: emakumeak birjina edo emazte giza agertzen gara gehienetan, apaiza, errege, jeneral, militar, kazike, margolari, idazle eta beste gizon anitzen artean. Ez al gara ba emakumeak amabirjina eta emazte baino askoz gehiago?

**Gazteon irudia oraindik hausnartzeke, baina ezer gutxikoa izango delakoan gaude: alegia, kale-izendegian ez gaituztela ez individualki, ezta kolektiboki ere ikustarazten.** Administraziotik noiz edo noiz beste nolabaiteko protagonismoa eman nahi izan zaigunean, pixka bat hanka-motz geratu dira ekimenak: Gasteizen, emakume feministen omenez izendatu nahi izan ziren auzo bateko kaleak, eta azkenean lau kale besterik ez ziren izendatu, margolarien omenezkoak hamarnaka izanik, bata bera ere emakume izan gabe. Eskertzeoak dira, ba, gure kale eta hirien aniztasuna aldarrikatzeko kolektibo ezberdinek antolatutako ekimenak.

Ordea, kaleak izendatzea ez da hiriak gizartearen irudikariari eragiteko duen modu bakarra. Eskala orokorrago batean aztertzen badugu hiri eta herrien irudia, beroriei identitatea ematen diotenak gizartearen botere banaketaren islada direla ikusiko dugu: botere ekonomikoa, botere erlijiosoa eta kirol bote-re-a (bulego-eraikinak, gehien bat enpresa multinazio-nalenak, eliza, katedral eta bestelakoak, eta nola ez, futbol zelaiak). Horiek guztietan, arrazoi estructuralak direla-eta, emakumeon sarbidea zaila da edota debekuta dago. Ondorioz, gune horiek guztien boterea ikustarazteak gure izana gutxietsi dezake.



## HIRIGINTZA BARNERATZAILEAREN BIDEAN



Hiriak gure gizartearen hein handi baten euskarria dira. Berauen antolamendua, eraikuntza eta berantolakuntza hirigintzaren esku daude. Beraz, hiri barneratzaileak lortzeko, oinarrizko da hirigintza barneratzaile bat egikaritzea. Horretarako, gaur egun indarrean dagoen eredu berrikustea berebizikoa da. Bainan esan izan denez, hiri eta hirigintzaren bazterkeria ez da metro karratu bat gora edo beherakoan ematen eta horrexegatik, hirigintzaren oinarriak berak berrikusi beharra dago.

Hirigintzaren berrikuste honetan, bi oinarrizko puntu hartu beharko lirateke kontutan: **batetik, hirigintza merkatu eta kontsumoaren logikatik atera, eta bestetik, praktika kolektibo bihurtu.**

Lehen puntuari dagokionez, argi eta garbi ikus ditzakegu hamarkadetan eman izan den lurzoru eta etxebizitza eskubidearen merkantilizazioaren ondorioak. Haien inguruko eta urruneko lurzorua porlanez bete dute hiriek, eraikinak non nahi altxatu dira... baina hiriak bizitasuna ez da areagotu, etxebizitza beharra ez da murriztu, haatik, egoera okerrera doa. Beraz, **beharrakoa da hirigintza, legeetan idatzitakoaz harago, benetan funtzió publiko bat izatea.**

Bigarren puntuari dagokionez, egungo hirigintzak aniztasunaz hirugarren pertsonan hitz egiteko duen ohitura txarra dela eta, praktika kolektibo bihurtu beharra dago. Denon nahi eta beharren arteko elkarritzeta ezinbestekoa da, baita erabakiak bulegoetatik ateratzea ere. Denontzako diren hiriak eraiki eta bitzeko, berebizikoa da gizartea, geuk, zeresana, jakinmina, formakuntza, hitza... izan eta erabiltzea.

